

SIDRERÍAS-SAGARDOTEGIAK

2014ko txotx boladaren balorazioa.

SAGARDOAREN LURRALDEA - 07/05/2014 · 11:03 · [Editar](#)

Sin comentarios



Txotx boladari hasiera emateko ospatu genuen **XXI. Sagardo Berriaren Egunean** atzerriko medioen presentzia handia izan zen, eta honek, aurren eskualdeko sagardotegietara nazio mailako eta atzerriko bisitarien kopurua handitzea eragin du. Krisiaren eragina Gipuzkoarren artean nabaritu da gehienbat, bertako sagardotegietarako joan-etorria murriztu egin delarik.

Urtarrilaren 16an, asteazkena, 2014ko txotx boladari hasiera eman genion Astigarragan **XXI. Sagardo Berriaren Eguna 2014** ekitaldiaren ospakizunarekin. Urtero bezala, Sagardoetxean sagardo berriaren

ezaguerriak aurkeztu genituen eta ondoren Kalakan musika taldeak sagardotegi denboraldi berria zabaldu zuen Alorrenea sagardotegian "Gure Sagardo Berria" oihu eginda. Urtero bezala eta aurkezpen ekitaldi honen ostean, sagardotegiek beren atekak denboraldi berriari zabaldu zituzten ostiral horretan eta apiril amaiera bitartean, **sagardotegietako txotx denboraldiaz** gozatzeko aukera izan dugu bertako zein kanpotarrek. Txotx denboraldia amaituta, sagardotegi askok beren atekak itxi dituzte, baina badira txotx-aren errituaz urte osoan zehar gozatzeko aukera ematen dituzten sagardotegiak ere.

Aurren bereziki nabarmentzekoa izan da **nazio mailako zein atzerriko komunikabideek sagardotegietako txotx boladaren inguruan egin duten zabalpena**. Txotx boladari hasiera emateko ospatu genuen Sagardo Berriaren Egunean ere ikusi zen kanpoko medioen presentzia aurreko urteetako baino handiagoa izan zela eta hori nabaritu egin da medioetako difusio eta sare sozialetako zabalpenaren. Besteak beste, BBC Travel, Antena 3, EITB, Pupilas Gustativas, etab.

Horren eraginez, aurreko urteetako txotx boladekin alderatuta, nabaria da **geroz eta kanpoko jende gehiago etortzen dela sagardotegietara eta nazio mailatik datozen bisitarien eta atzerriarren kopurua goraka doala**. Horren adibide dira aurreko sagardotegietan ospatu ditugun probaketak, arrakasta handia izan dute eta urtetik urtera parte-hartzaileen kopurua goraka doa. Aurren gainera, nabarmentzekoa da Gipuzkoatik kanpoko jendearen parte-hartzea, Gipuzkoarrez gain (%74), asteburu pasa etorri diren Cantabria, Asturias, Madrid eta Frantziako bisitariak ere izan baitira probaketa hauetan (%26).

Txotx bolada honetan **sagardotegiak beteta egon dira larunbat eguerdian** eta jende asko tokirik gabe geratu da. Erreserbak orain arte bezala telefonoz eta e-mailez kudeatu dira eta **txotx.info orrialdetik egindako erreserben kopurua asko handitu da**. Bestalde, bisitarien satisfazio inkestak e-mailez bidaltzen hasi gara, erantzun ugari jasoz.

Sagardoetxeako salmenten kopurua %15a igo da txotx bolada honetan eta sagardotegien kasuan bezala, aurreko urteetan baino nazio mailako bisitari gehiago etorri dira eta atzerriarren kopuruak ere goraka egin du. Igoera honen arrazoiak, esperientzia turistikoa ezberdinen sorrera izan da.

Txotx boladak **herrietako bizitza alaitzen du** eta **ekintza** gehiago antolatzen dira herrian, besteak beste: sagardotegietako probaketak, azokak, dantzari egunak, musika emanaldiak, Sagar Lasterra, Sagardoaren Kofradiaren Eguna, etab. eta bisitariak, bestelako plan osagarriak egiteko aukera izaten dute, besteak beste, **Sagardoetxeako** bisita, Astigarraga eta Hernaniko bisita gidatuak, **Santiagomendiko Sagardo Bidea**, **gaztandegira bisitak**, etab.

Txotx boladak sagardotegien inguruan dauden **zerbitzuetan** zuzeneko eragina dauka, besteak beste ostaluetan, garraioan, ostalaritzan, etab. Hala, garraio enpresa pribatuek beren zerbitzuak hobetu dituzte txotx boladan zehar (gaueko lineako autobus zerbitzua jartzea, taxi zerbitzua handitzea, etab.) eta garraio publikoa erabiltzen duten bisitarien kopuruak gora egin du. Bestalde, ostaluetan (landa-etxeak, hotelak eta pentsioak) txotx boladaren eragina nabaritu da asteburuetan, nahiz eta bisitarien egonaldiak laburragoak diren orain.

Tags: bisitariak, experiencias, Probaketa, sagardoa, Sagardoetxea, sagardotegiak, Sidra, Sidrerias, txotx bolada, visitantes, XXI. Sagardo Berriaren Eguna

Sagardoaren Lurraldea



Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 559 575
info@sagardoarenlurraldea.com
www.sagardoarenlurraldea.com

[RSS Feed](#)
[Twitter](#)
[Facebook](#)

Buscar / Bilatu

Categorías

Azokak-Ferías
Ekitaldiak-Eventos
Errezetak-Recetas
Esperientziak-Experiencias
Formazioa-Formación
Gastronomia-Gastronomía
Historia-Historia
Kultura-Cultura
Lehiaketak-Concursos
Museos-Museoak
Prensa-Prensa
Sagarra-Manzana
Sagastia-Manzanal
Sidra-Sagardoa
Sidrerias-Sagardotegiak
Turismoa-Turismo

Post Recientes



2014ko txotx boladaren balorazioa.



Maiatzak 18-24: Dastiren astea Sagardoetxean.



SAGARDOA ETA ITSASOA, museotara bisita, sagardotegian bazkaria eta itsasontzian ibilaldia.



"II. Sagastiak Loretan"

Sagardoetxea.Maiatzak 18-24: Dastiren astea
Sagardoetxean.



ospakizuna Usurbilen.

Tu comentario / Zure komentarioa

Registrado como Sagardoaren Lurraldea. Desconectar »

Enviar



“Sagardotegiak eta
sagararak” hitzaldia
“German Arrien” elikadura
kultura ikasgela barruan.

Comentarios recientes

J.M de Amassorrarayn en **2014KO TXOTX IREKIERA. KALAKAN taldeak irekiko du txotx bolada berria.**

Kalakan abrirá mañana la nueva temporada de txotx | **NON SERVIAM** en **2014KO TXOTX IREKIERA. KALAKAN taldeak irekiko du txotx bolada berria.**

Sagardoaren Lurraldea en **XIV. Kirikoketa Besta Arizkunen, azaroaren 2an.**

agandamin en **XIV. Kirikoketa Besta Arizkunen, azaroaren 2an.**

Aritz en **Donostiako XXVIII. Sagardo Eguna, irailaren 7an.**